

PINTURA ESPERIMENTALA

SARRERA

Aurtengo uztailean, lehenengo hiru asteetan eta bi ordutako hiru klaseetan zehar, PINTURA ESPERIMENTALA izeneko ikastaro bat izango dugu. Bertan, pinturaren beste ikuspegi bat lortzen saiatuko gara.

Ikastaroa 18 urtetik aurrerako pertsonentzat da, eta parte hartzeko ez dago aldezturik inongo jakintzarik eduki beharrik, pinturarekin esperientzia berri bat bizitzeko gogoia eta kuriositatea besterik ez.

Izenak berak esaten duen bezala, esperimentuak egingo ditugu pinturarekin joko eta ariketa ezberdinen bitartez, pintura tradizionaletik kanpo dauden ikuspegiak ezagutzeko asmoz. Pertzepzioekin jolastu, koloreen esanahietan murgildu eta pintura eta sentimenduen arteko erlazioan hausnartuko dugu, pinturaren aurrean beste jarrera bat lortzeko helburuarekin.